



Manpower Group Solutions enpresarekin azpikontratatuak dauden Guggenheim Museoko hezitzaileek 24orduko 8 greba egun egingo dituzte abuztuan zehar pairatzen duten egoerari aldatzeko aldarrikatuz. Egoera honi irtenbide bat aurkitzeko premia dela eta, dei egiten diete berriz ere lan gatazka honetan aktore direnei prekarietatearekin bukatzeko konpromesu irmoa har dezaten.

Guggenheim Museoko Hezitzaileen oharra:

Manpower Group Solutions enpresarekin azpikontratatuak gauden Guggenheim Museoko hezitzaileek 24orduko 8 greba egun egingo ditugu abuztuan zehar, orain arte lan gatazka hau konpontzeko izan ditugun negoziaketetan agerian gelditu den eduki urritasunagatik.

Orain arte, ez dugu gure lanpostua urriaren 1etik aurrera mantentzeko inolako konpromisurik jaso, ezta gure lan baldintzak hobetzeko hitzik ere.

ManpowerGroupek prekarietatearekin ezin duela bukatu dio, Museoak egungo lizitazioan ezartzen dituen baldintzak kontutan hartuta.

Bestalde, Guggenheim Museoko ordezkari moduan, Garbiñe Urrutikoetxeak 'ahozko' konpromesu bat hartu du: abuztuaren amaieran edo irailaren hasieran erantzun bat emango du (positiboa edo negatiboa) kontratua bukatzeko hilabete baino ez denean geldituko. Ez du inolako bermerik eman subgrogazioarren inguruan (lan egonkortasuna sustatzeko) ezta gure lanpostuak duinak izateko aurrerapenik agertu ere.

Orain arte izandako negoziaketak ezerezean daude, eta hori ez doa bat bikaintasuna eta gardentasunarekin; Ez dakigu zer nolako lan baldintzak izango dituzte gure lanpostuek Urritik aurrera, eta are gehiago, ez dakigu data horretatik aurrera gure lanpostuak mantenduko ditugun ere.

Horregatik, eta irtenbide bat aurkitzeko premia dela eta, dei egiten diegu berriz ere lan gatazka

honetan aktore direnei (Manpower Group eta Guggenheim Museoa) Museoko zuzendaritzari, Patronatoa osatzen duten erakunde publikoei (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) prekaritatearekin bukatzeko konpromesu irmoa har dezaten.

Museoa diruz laguntzen dituzten erakunde publikoen jakinaren gainean jarri dugu gure egoera. Orain dela hilabete bat baino gehiago, idatzi baten bitartez batzarra eskatu genuen Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko udala eta Angel Toña enplegu eta gizarte sailburuarekin. Hauetatik, Juan Mari Aburtoren (Bilboko alkate izanda Patronatoko kidea) erantzuna baino ez dugu jaso, eta honetan ez digu batzarrik ematen eta gaian duen erantzunkizuna arbuiatzen du, konponbidea Museoko Zuzendaritzaren esku utziz.

Azpimarratu nahi dugu gure aldarrikapenak langileon duintasunaren aldekoak direla, gu gara Museoko aurpegia Hezkuntza programen garapenean eta gure egoera lotsagarri honi bukaera eman behar zaio, hau ezin da bikaintasuna eta kalitatea bermatu nahi duen zentro batean onartu.

Museoko Hezkuntza Departamentuko Hezitzaileak gara eta ilusio handiz departamentu berritzaile eta aitzindari honetan parte hartzen dugu, baina gure ikasketa maila eta kategoria profesionala ez doa bat jasotzen dugun soldatarekin. Ez gara 'esperimentalak' eta ez ditugu 'ekintza puntualak' burutzen, urte osoan zehar egin dugu lan Hezkuntza Departamentuko programa ez berdinak aurrera eramateko: Bisitak haur, gazte zein helduekin, Irakasleen formakuntza saioak, Tailerrak, Familien programak, Artearen Cornerra eta Orientazioa aretoetan.

Azkenik, esan beharra dago greba egunak bertan behera uzteko borondatea azaldu diegula bai Museoa zein Manpowerrei, subrogazioa eta dagokigun kategoria profesionala aitortu eta bermatuz gero.

—

—

— [Udaletxeari igorritako gutuna](#)
